

## ILEAPAINDEGIA

*Ile-apaindegian hasten da eszena, ile-apaintzailea (Patricia) eta bi bezero (Bakartxo eta Maialen). **Ile-lehorgailuaren ondoan** (???) daude **aldizkari** bat irakurtzen. Handik pixka batera beste bezero bat sartzen da (Cipri) , B eta M **berriketan** hasten dira*

Bakartxo: Begira horren itxura!

Maialen: egia ! agian, inauterietan gaudela pentsatzen du!

*Biak barrez hasten dira eta Patriciak esaten du:*

Patricia: egun on! Zer nahi zenuen? (duzu)

Cipri: ilea moztera nator, **zuhaitz baten sustraian moduko tximak ditut.**

Patricia: ederto, baina ordua **hartua al** zenuen?

Cipri: Ordua?Ez, Ez daukat ez ordurik eta ez erlojurik! presaka nabil.

Patricia: Ongi da, baino lasai! Pasa **ilea garbitzera**, mesedez.

Cipri: **Ilea garbitzera** ez, ez, ezta pentsatu ere, ura arraintzat bakarrik!

Patricia: Barkatu baina mozketa eder bat egiteko ilea garbitzea beharrezkoa da.

Cipri: Ongi, beste aukerarik ez bada...

Patricia: Ederto, hemendik mesedez.

*Burua garbitu ondoren...*

Patricia: Mozketa bereziren bat pentsatu al duzu?

Cipri: Ez, ideia bat emango al zenidake?

Patricia: Bai, tori modako errebista hau, eta aukeratu bat.

Cipri: Beno berdin da, zure **esku utziko dut.**

Patricia: Ederto...badakit! Orrazketa moderno bat egingo dizut, **fidatu nirekin !**

*Burua garbitu ondoren, beste eserleku batean esertzen da ilea mozteko asmoarekin, eta ileapaindegian dauden beste bi bezeroek esaten diote ile-apaindegiari*

Maialen: Tinda iezaiozu gorriz!

Bakartxo: Baina zer esaten ari zara emakume!!! **Soil iezaiozu burua...**(biak barrez hasten dira)

Cipri: kuxkuxero hutsak zarete, **segi zuen kontuetara !**

*Ile-apaintzailea ilea mozten hasten da, ondoren tinda ematen dio eta **erruloak** jartzen dizkio.**Segidan**, burua albal paperaz estali ondoren bi emakumeen ondoan **eserarazten** du.*

Patricia: Pasa ile-lehorgailura mesedez. Ez aspertzeko aldizkari bat emango dizut.

Cipri: Eskerrik asko.

***Ordu bat**, b ordu , hiru ordu pasatzen dira...eta **hirurek** bertan jarraitzen dute*

Patricia: eser zaitez hemen mesedez, oraintxe bertan orraztatuko dizut. Ui, zein **kirats darion!**

*Momentu horretan bi emakumeak **algaraka** hasten dira eta C kezkatuta begiratzen du*

Maialen:ea nola utzi duen.

Bakartxo:bai, bai

*Biak berriro barrez. Ile-apaintzailea kezkatuta, albala kentzen hasten da eta kentzerakoan garrasi egiten du bezeroak buruan ilerik ez daukala ikusterakoan ...*

Cipri: Baina, baina, zer egin didazu emakume!!!

Patricia:Barkatu baino ez dakit zer gertatu den, gaur nire lehenengo eguna da eta nire hirugarren bezeroa zara.

Maialen eta Bakartxo: (biak garrasika esaten dute) Zer!!!!???? Ez!!!!!!!

*Eta agertzen dira hirurak ilerik gabe, **burua erabat soilduta.***